



Jakin filosofatzen

«Nire galdera komodina beti da 'non gaude?'»

Nerea Ibarzabal Salegi

◇ Galdera handien territorioa da filosofiarena. Zein da galdere-tan galderena zuretzat?

Itolarria baretzeko nire galdera komodina beti da «non gaude?». Espazio infinituan flotatzen ari den bola birakari batean bizi garela pentsatzeak erlatibizatzen laguntzen du.

◇ Zerbaitek harritzen zaitu bereziki giza kondiziotik?

Liluratzeko gaitasunak hunkitzen nau. Eta maitasuna lor-zeko gutako bakoitzak garatzen dituen estrategia anitzek.

◇ Bada pisua galtzen sumatu duzun galderarik inguruan?

Pisua galtzen baino, esanahiz aldatzen edo anizten suma-tu ditut *askatasuna* eta *autodeterminazioa* kontzeptuak, umetan erabat territorioari lotuta transmititu zizkidatenak, eta orain bestela ulertzen ditudanak, atomizatuago, interpela-tzaileago.

◇ Eta biziagotzen sumatu duzun galderarik zugan?

Zer den bizitza on bat, zer behar dudan nik ondo bizitzeko, eta ea erantzun hori bateragarria den besteak ondo bizitzear-ekin.

◇ Bat zatoz Angela Davisekin? Itxaropena da oroz gain praktika-tu beharreko diziplina?

Bai. Errazagoa da ezkortasunaren giharra lantzea. Neu ere erraz engantxatzen naiz distopietara, baina baikortasunak irudimen handiagoa eskatzen du, eta ausardia.

◊ Zein beste ideari heltzen diozu bi eskuekin gaur?

Enpatiari. Elkarrengana hurbiltzeak biolentziaren intentsitatea jaits dezakeela uste dut; min emateko, min hori ez ikustea da gakoa. Isolateak zikoiztu egiten gaitu; igurtziak, bigundu.

◊ Nora jo mundua irakurtzeko?

Nik, errekarra, animalien artera, hizkuntzetara, poesiara, zinemara.

◊ Eta zer egin gizakia ulertzeko?

Existenziaren ziurtagabetasuna jasateko asmatu ditugun drogei eta dogmei erreparatu.

◊ Hitza eta ahotsa. Bakoitzaren inguruan tanta filosofiko bat eskatuko banizu?

Hitza: Nahi nuke denboran 500 urte aurrera egin, eta gizateriak asmatu behar izan dituen hitz berrien zerrenda irakurri, zer pasatu den eta zein mundu klase daukagun igartzeko.

Ahotsa: Jendez betetako espazio batean norbait garrasika edo kantuan hasten bada, denok biratu ohi dugu burua ahots horren bila, lehenengo inpulsoa arreta eskaintzea da. Orain arreta garesti dago, zaratarekin bizitzen ikasi dugu. Ez dakit elkarrengana iristeko benetako interesik daukagun.



Itziar Ugarte Irizar
